

Hernaniko ikuspegi ederrenaz eta paisaia berdeaz gozatzeko, hiru ibilbide aukeran

Sekula huts egiten ez duen horietako plana da, klasikoa izanagatik ere: ibilaldi polit bat goizean, eta bazkari ederra ondoren, indarrak berritzeko. Hernanin, ibilbide errazak daude horretarako: Santa Barbaran barrena paseoa, sagardotegien ibilbidea, edo Zikuñagako Ama ermitara bisita.

HERNANI IBILBIDEAK

Eguzkia, zeru urdina, tenperatura atsegina... Udaberri giro ederrak behar du izan protagonista, datozen asteotan. Eta horrelakoetan, zeinek ez dauka tentazioa, paseo bat ematera ateratzeko? Eta ba ote dago eguna borobiltzeko modu hoberik, taberna edo jatetxe batean ederki bazkaltzea baino? Baterako zein besterako, aukera ezin hobeak aurkituko ditugu Hernanin.

Askotarikoak dira, herriko inguruetan egin daitezkeen paseoak. Baina hiru proposatuko dizkizuegu, Hernaniko ikuspegi ederrenaz eta paisaia berdeaz gozatzeko. Horietako bi, marka txuri-urdinekin daude seinalizatuta; eta hirugarrena, toki berezi bat bisitatzeko alternatiba da.

Santa Barbarara ibilbidea, txoko bereziak ezagutuz

HIU-1 izeneko ibilbidea da aurrenekoa: Santa Barbaran barrena 7 kilometroko paseoa. Laubidietako bidegurutzetik abiatuko gara, etxe berriak egiten ari diren tokitik, hain justu. Marka txuri-urdinei segita, Arrobi ostatuaren eskuinetik pasa, eta gorantza dijoan mendi bidea hartuko dugu. Horrek zuzenean

eramango gaitu Santa Barbara ermitara: kilometro eta erdi inguru osatzerako, bertan izango gara, Hernaniko ikuspegi ederraz gozatzeko moduan. Jate-txearen ondotik, hormigoizko pista hartuko dugu jaisteko, eta beheko bidegurutzera iritsita-koan, Lasarte-Oriako hilerri-ko bidea hartuko dugu, Jauregi bailaran barrena osatzeko ibilbidearen bigarren zatia. Hilerri-ira iritsi aurretik, garai bateko ferratokia ikusteko aukera izango dugu. Eta aurrerago, Galarreta ingurura iritsi aurretik, Koronelarri izeneko harriaren ondotik pasako gara. Bertatik, Sorgintxulora jaisteko bidea hartuko dugu, eta Marieluts eta Karobieta auzoetan barrena iritsiko gara hasierako puntura.

Sagardotegien bidetik, Osiñaga auzoan barrena

Sagardotegietako ibilbidea da bigarren aukera, HIU-2 izeneko, hori ere txuri-urdinez markatua. 8,6 kilometroko ibilbidea da, eta Portu auzoan hasiko dugu, Shangai ondoan. Bertatik, Osiñaga auzorako bidea hartuko dugu, eta hasieratik ikusiko ditugu marka txuri-urdinak margotuta. Loidi baserrira iritsiko gara horrela, eta bertan aurkituko dugu bidegurutze nagusia:



Hernaniko ikuspegi ederrak izango ditugu, proposatutako hiru ibilbideetan. Argazkikoa, Zikuñagako Ama ermitakoa.

alde batetik joango gara, eta bestetik bueltatu. Loiditik eskuinera igotzen den bidea hartuz gero, Otsua-Enea eta Olaizola sagardotegien ondotik pasako gara, eta berehala aldatuko da paisaia, gure aurrean. Onddi eta Adarra mendiak begibistan ditugula, baserriz baserri joango gara, Pardiolatxikira iritsi arte. 3 kilometro izango ditugu ordu-ra arte, eta dagoeneko osatuta izango dugu gorantzako ibilbide zati osoa.

Pardiolatxikiko bidegurutzeari ezkerrean hartu, eta behegantzako bidea hasiko dugu. Okendoenea baserriaren ondotik pasa, eta Goi-ko Lastola sagardotegira iritsiko gara. Ezkerretara bi bider biratu, eta bueltako bidea hasiko dugu. Beste hiru sagardotegi izango

ditugu zain, bidean. Elorrabi sagardotegira iritsiko gara aurrena, eta Iparragirre eta Alzueta sagardotegien ondotik pasako gara ondoren. Loidira iritsi, eta hasierako bide beretik egingo dugu bueltako bidea, Portura.

Bi ibilbide horiek, HIU-1 eta HIU-2, Mendiriz Mendi elkar-teen webgunean (mendirizmendi.com) daude ikusgai, Hernani izeneko atalean. Ibilbideen xehetasun guztiak daude bertan: fitxa teknikoa, informazio praktikoa, mapa, gida, eta deskargatzeko trackak, KML eta GPX formatuetan.

Zikuñagako Ama ermitara bisita, sagardotegien ibilbidea aprobetxatuz

Seinalizatu gabekoa da hiruga-

rren proposamena, baina Sagardotegien ibilbidea aprobetxatuz osatu daitekeena, pil-pilean dagoen toki berezi bat bisitatzeko: Zikuñagako Ama ermita berria. Horretarako, Portutik bertatik Osiñaga aldera abiatuko gara, eta Loidi baserrian, ezkerreko bidea hartuko dugu, Elorrabi sagardotegira dijoana. Puntu horretan desbideratuko gara HIU-2 ibilbidetik: Elorrabiko zubi berria pasa, eta Ibarluze poligonora iritsiko gara, Hernaniko Arraun Elkar-teen ondora. Ezkerrean biratuta, Garbigunearen ondotik pasako gara orduan, eta zigzag itxurako aldapak bideratuko gaitu Zikuñagako Papeleraren ingurura. Errotondan Zikuñaga auzorako bidea hartu, eta Txinxua jatetxearen aurretik pasa



Ibilbide polita osatu daiteke Santa Barbarara igota, marka txuri-urdinei segika.

SANTA BARBARAKO IBILBIDEA (HIU-1)

(Marka txuri-urdinekin seinalizatua)
Luzera: 7 kilometro
Desnibela gorantza: 200 metro
Iraupena: 2 ordu inguru
Hasiera eta bukaera: Laubidietako bidegurutzeari

Deskribapen laburra: Herrigunetik gertu, Santa Barbara mendia hernaniar askorentzat mendi-bira txiki bat egiteko ingurune bikaina da. Ibilbide honen bitartez, Lasarterekin muga egiten duten bideetatik pasatuz, Santa Barbara ingurua hobeto ezagutzeko aukera izango dugu, mendixka honek izan duen garrantzi historikoa azalduz.

SAGARDOTEGIEN IBILBIDEA (HIU-2)

(Marka txuri-urdinekin seinalizatua)
Luzera: 8,6 kilometro
Desnibela gorantza: 150 metro
Iraupena: 2 ordu inguru
Hasiera eta bukaera: Portu auzoan, Shangai ondoan

Deskribapen laburra: Hernaniko hainbat sagardotegi lotzen dituen ibilbide honek, baserri eta sagarrondo artetik igarotzeko aukera ematen digu. Zailtasun txikiko bide hau, txotx garaian sagardotegietara doan jendeari zuzenduta dago, izatez. Edonola ere, Osiñaga auzoaren paisaia ederraz gozatzeko aukera ematen digu, Onddiren magalean.

ZIKUÑAGAKO AMA ERMITA BERRIRA BISITA

(Seinalizatu gabea)
Luzera: 5,8 kilometro
Desnibela gorantza: 110 metro
Iraupena: ordu eta erdi inguru
Hasiera eta bukaera: Portu auzoan, Shangai ondoan

Deskribapen laburra: Seinalizatu gabeko paseoa da, baina Sagardotegien ibilbidea aprobetxatu dezakegu, Portu auzotik Elorrabi sagardotegira. Bertan desbideratuko gara, Elorrabi zubia pasa eta Zikuñaga auzorako bidea hartuz, Zikuñagako Ama ermita berria igotzeko. Ermitatik aurrera jarraituz, Akarregi sagardotegira jaitsiko gara, eta Karabeleko zubitik bueltatuko gara Portu auzora.

ondoren, 200 metrora aurkituko dugu Zikuñagako Ama ermitara igotzeko aldapa, eskubitara, To-ki-Alai etxearen ondoan.

Aldapa pikoa izango dugu er- mitara bidean, baina saria izan- go du goran: gaur inauguratuko duten ermita berriaz ez ezik, Hernaniko ikuspegi paregabeaz ere gozatuko dugu bertatik. Atse- denerako gun e gisa ere, ezin aproposagoa da tokia. Berriro martxari ekiteko, errepidean au- rrera segiko dugu, Orkolaga ba-

serriaren eta ermitaren artetik. Bidea zartatua dago aurrerago, baina oinez joateko ez du traba- rik egingo. Beherantzako joera hartuko du bideak berehala, eta Akarregi sagardotegira iritsiko gara zuzenean, A-15 errepidearen azpitik pasa ondoren. Akarre- gitik Karabeleko zubirako bidea hartuko dugu, eta bidegorriak eramango gaitu Portu auzora bueltan. 6 kilometro exkaxeko ibilbidea da, guztira.

Hiru ibibideetako bat, edo

beste edozein osatuta, gosetu ere egingo gara, eta erremedio onenak, herrian bertan izango ditugu, inora mugitu beharrik izan gabe. Horien artean bi, pri- merakoak, azpian aurkituko di- tuzuenak: Zinkoenea taberna, Kaxkoan; eta Karrero taberna, Urbietta kalean. Bietan, bapo baz- kaltzeko aukera zabala bezain goxoa aurkituko dugu: haragia eta arraina parrillan, pintxoak, bokatak, entsaladak, plater kon- binatuak, menua edo karta... **k**



Sagarrondoan ondotik pasako gara, Sagardotegien ibilbidean.

Zinkoenea taberna



0 km BAILARA

Zinkoenea tabernan berebiziko garrantzia ematen diote garaiko produktuei. Ez hori bakarrik, tabernan eskaintzen duten menua sortzerakoan, bertako produktuak hartzen dituzte kontuan: Tolosako babarrunak, barazki freskoak, ...



HERNANI BABESTUTAKO EDUKIA

Haragia eta arraia parrillan egi- tea da Zinkoenea tabernaren espezialitateetako bat: xapoa, arkumea, erreboilua, txahal sailheskia, kokotea, eta abar. Bestela ere, bertan aurki daitez- keen pintxoek eta fritoek egiten dute ezaguna taberna.

Egunero, eguneko menua es- kaintzen dute, 15 euroan: lehe- nengo eta bigarren platerak, edaria eta postrea. Postre gozoak ere badituzte, txokolate krepa eta gazta tarta, esate baterako.

Asteburuetan, berriz, karta dute. Kartan dituzten jaki guz-

tiak parrillan egiten dituzte. Edari alkoholdunei dagokienez, aukera haundia dute tabernan: ardo beltza, zuria, gorria eta sa- gardoa (12 sagardo marka).

Terraza dute, eta bazkaldu zein afaltzeko, erreserba egitea eskatzen zaie bezeroei. Razioen karta luzea ere badute: urdaiaz- pikoa, kalamarrak, bakailua parrillan, sardinak, entsalada mistoa... Horretarako, taberna- ra deitu behar da. Eramateko janaria ere prestatzen dute be- zeroak nahi izanez gero. Egu- nero ematen dute bazkaria, eta igande arratsaldetan izan ezik.

ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera
• 10:00 - 22:00
Asteburuak
• 11:00 - 00:00



Kale Nagusia, 57
943 55 11 37

Karrero taberna



Pintxo eta razioez gain, plater mordoa aurki daiteke bertako kartan

HERNANI BABESTUTAKO EDUKIA

Ezaguna da Karrero bertan es- kaintzen dituzten pintxo eta etxean eginiko platerengatik. Horrez gain, karta, bokatak, entsaladak, plater konbinatuak, ra- zioak, hanburgesak eta abar au- rki daitezke. Sukaldatzen duten guztia, tabernan bertan egina da, eta gosariak, bazkariak eta afariak ematen dituzte. Terraza zabalak lasai eta eroso egoteko aukera ematen du. Bi daude: bat tabernaren aurrean eta bestea, berriz, atzealdean.

Kafetegia ere bada Karrero. Kafeak eskaintzeaz gain, fres- kagarriak, bizkotxoak, tartak eta edari alkoholdunak ere es- kaintzen dituzte. Herriko jaie- tan, San Joanetan, urtero, menu bereziak prestatzen dituzte, koadrila eguna ahalik eta ho- beren ospatu ahal izateko. Egi- ten dituzten platerak, gainera, kutsu moderno eta tradizionala dute, eta bezero mota guztietar-

ASTEBURURAKO IRADOKIZUNAK

Lehenengoak

- Bieiren eta otarrainxken entsalada epela
- Hostorea onddoz eta foiez beteta

Bigarrenak

- Txuleta
- Txipiroiak plantxan
- Legatza labean, gulak oliba-kremaren gainean duela

rako daude eginak.

Tabernan erabiltzen dituz- ten lehengaien %90a bertako produktuak dira: Barazkiak, esnea, garaiko elikagaiak, arrai freskoa, eta abar. Ia astebururo, iradokizun bereziak proposa- tzen egiten dizkiete tabernara bertaratzaren diren bezeroei.

Funtsean, kalitatezko lehen- gaiak erabiltzeari garrantzia ematen diote Karreron, eta hori haiek egindako plateretan era- kustea da helburu nagusia. Eta otordua etxeko berotasunean egin nahi dutenentzat, erama- teko jana ere prestatzen dute.

Urbietta Kalea, 15
943 55 26 07

ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera
• 09:00 - 01:00
Asteburuak
• 10:00 - 01:00



Ikuskizunaz gozatzeraz Galarretara, ondarea ezagutzera Chillida Lekura eta... tripa betetzera!

Kulturaz eta kirolaz bustitzeko, aisialdirako eskaintza zabala dago Hernanin, adin-tarte guztietako herritarrentzat. Eguna borobiltzeko, gainera, gastronomiaz gozatzeko aukera ezin hobe aurki daiteke Diametro 200 jatetxean.

HERNANI AISIALDIA

Aisialdirako, hamaika leku eta hamaika egiteko ditugu Uru-mea bailaran, familiarekin, lagunekin, bikotekidearekin, bakarrik edo nahieran gozatzeko. Hain zuzen, bailarako ondare historiko-artistikoari esker eta astero-astero antolatzen diren egitasmoekin, ondo pasatzeko eta ingurua ezagutzeko aukera paregabea dute adin-tarte guztietako herritarrek.

Kirola maite duten horiek galdu ezineko geldialdia dute Galarretan. Izan ere, Berria Txapelketaren finalerdiak jokatu dira datozen egunotan, eta erremontea puri-purian dago une honetan. Final haundia apirilaren 9an izango da, eta orain arte bezalaxe, giroa eta ikuskizuna ziurtatua egongo dira.

Horrekin batera, gogoratu Kronikak Galarretara bertaratzeko gonbidapenak banatzen dituela. Pertsona bakoitzak bi hartu ahal izango ditu. Beraz, animatu eta gerturatu bulegora (Larramendi kalea, 11 zenbakia).

Chillida Lekun, bisitak, tailerrak eta beste asko

Euskal ondare historiko-artistikoari begira, Hernanik duen altxor preziatua da Chillida Leku. Ziurrenik, zuetako askok eta askok ezagutuko duzue Eduardo Chillidaren museoa. Beste batzuek, ordea, aukera gertu izanda ere, oraindik ez duzue Chillidaren lanetan murgiltzeko plazera izan. Bada, Aste Santua ate joka dugun honetan, aisialdiaz gozatzeko, Chillidaren lanak eta bizitza ezagutzeko hitzordua zehazteko parada duzue honakoa.

Chillida Lekuren eginkizun nagusia Eduardo Chillidaren obra eta pentsamendua orokortzea da. Horregatik, hori guztia ezagutzeko aukera eskaintzen die bisitariei. Zabalaga baserria, lorategia eta museoa bera ezagutzeko interesa dutenek, ostegunetik astelehenera bisita dezakete Chillida Leku, 10:00etatik 18:00etara. Prezioei dagokienez, sarrera 12 euro dira helduentzat; 10 euro, berriz, 10 pertsona baino gehiagoko taldeentzat, 65 urtetik gorakoentzat eta ikasleentzat; 6

euro 18 urtetik beherakoentzat, desgaitasunen bat duten herritarrentzat eta langabetuentzat; eta, azkenik, 8 urtetik beherakoentzat, doakoa da sarrera. Erreserbak egiteko, idatzi reservas@museochillidaleku.com helbidera edo deitu 943 33 59 59 telefonora.

Horrez gain, erakusketak eta bestelako ekitaldiak ere izaten dira museoan. Informazio guztia eskuragai dago museochillidaleku.com webgunean.

Hementxe aurkeztu dizkizuegu bi plan borobil: erremontea Galarretan eta goiz edo arratsalde pasa Chillida Lekun. Gero, eguna ezin hobe amaitzeko, bi toki horietatik oso gertu, Diametro 200 jatetxea duzue. Lantalde osoak esku zabalik hartuko zaituzte, eguneko menuak zein kartako produktuak eskaintzeko prest. **k**

CHILLIDA LEKU

Zabalik:
Ostegunetik astelehenera,
10:00etatik 18:00etara.
Sarrerak:
'www.museochillidaleku.com'.

GALARRETA

Jaialdiak larunbat arratsaldetan, hiru partidurekin.
Sarreretan deskontuak harniarrentzat. Informazio gehiago: 'www.oriamenti.eus'.



'Argiaren bila' eskultura, Chillida Lekun.



Giro bikaina Galarretan, Masters Txapelketako finalean.

Diametro 200



Diametro 200en eska daitezken plater desberdinak

HERNANI BABESTUTAKO EDUKIA

Diametro 200 jatetxeok argi dute beraien filosofia: beti egiten dute apustu bertako produktuen-gatik. Ahal den neurrian, garaiko

eta produktu ekologikoak dituzte oinarrian platerak osatzeko. Horrela, elikadura osasuntsua sustatzeko helburua betetzen dute.

Menua 14,30 euroan dago eskuragai, eta gainera, jatetxea

izateaz gain, taberna ere badu. Menuarekin batera, karta ere badago. Platerak oso maiz aldatzen ahalegintzen dira, eskaintza ahalik eta anitzena izan dadin. Gainera, denetarik izaten dute: beganoentzat, begetarianoentzat eta haragia zein arraiak jaten dutenentzat.

Kartaz eta egunerokoaz gain, bokatak, hamburgerak eta sandwichak eskaintzen dituzte. Den-denak jatetxean bertan egindakoak. Horrez gain, barazkiak ere beraiek garbitzen dituzte eta ogia, pasta zein izozkiak ere bertako sukaldariak elaboratzen dituzte. Diametro 200en saiatzen dira, ahalik eta mimo haundienarekin, kate guztia beraiek garatzen. Eguneroko menuari dagokionez, aldatzen joaten da, eta self-service moduko sistema erabiltzen dute. Eguneroko menuaren barruan, lehen eta bigarren plateraz gain, postrea ere sartzen da. Asteazkenetik, dinamika aldatzen da, eta ostiralean, berriz, kontsumitzaileei astegu-

KARTAKO PLATER BATZUK

Lehenengoak

- Etxeko pasta freskoak
- Garaiko barazkien tenpura
- Tolosako babarrunak

Bigarrenak

- Eguneko arraina

- Olagarroa plantxan
- Tajin bildots ekologikoa

Postreak

- Idiazabal labeko gazta tarta
- Intxaur-saltsa
- Kataifiz bildutako platano frijitua

ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera

- 08:30 - 16:00

Asteburuak

- itxita

☎ 943 26 50 22

ETORRI ETA GOZATU

Ø200 slow kafetegia

<http://www.diametro200.com> Galarreta, Orona Fundazioa eraikina, Hernani

Tokiko gastronomia goxatu, eta antzerkian, zinean eta kultur ekitaldietan gozatu

Aste Santua ate joka dugun honetan, hamaika plan egiteko proposamena aurkeztu dute kultur agendek. Hernaniko jatetxeek eta taberneek, gainera, kultur ekintza horietan gozatu aurretik edo ondoren, otordu goxoak dauzkate aukeran.

HERNANI AISIALDIA

Asteburua iritsi eta, askotan, planik ez dugu izaten larunbaterako edo iganderako. Nolanahi ere, Urumea bailaran, hilero-hilero, kultur eskaintza zabala aurkezten dute bertako Udalek eta elkarteek. Zehatzak izateko, Hernanin, hilabete hasieran argitaratzen dute plangintza *kultura.hernani.eus* webgunean. Denetarik izaten da: antzerkiak, musika eta dantza emanaldiak, literatura solasaldiak, erakusketak, eta abar. Etxeko txikientzat, gazteentzat zein helduentzat prestatzen dute kultur agenda, eta makina bat egiteko izaten dira astero.

Hori ez ezik, aukeratutako ekintzarekin batera, eguneko plana borobiltze aldera, herriko tabernetan eta jatetxeetan menu goxoak dastatzeko aukera izaten da. Eta, Aste Santua ate joka dugun honetan, atsedenerako tartea hartu eta egun osoko planak egiteko aukera izan daiteke bi planak uztartzea.

Hain zuzen, plana izan dai-

teke zinera edo antzerkira joatea eta, gero, lagunekin, senitar-tekoekin edota bikotekidearekin herriko jatetxeren batean afaltzea. Zumardin, esaterako, aurreratu dute beraien espezialitatea dela parrillan egindako arraia eta haragia. Hori bai, jate-txeko izarra da arroza bogabantearekin. Horixe bera ziurtatzen dute bezeroek, gehien eskatzen duten platera da-eta.

Aralar tabernan ere aukera zabala aurki daiteke. Bertako pintxoak oraindik dastatu ez dituenak, aukera bikaina du kroketa tradizionalekin zein berritzaileekin ahosabaia goxatzeko, edota barrako eskaintza goxoekin tripa betetzeko. Gainera, mimo haundiz prestatzen dituzte guztiak, eta horrexegatik dira ezagunak herrian.

Kultura eta gastronomia

Bi aste besterik ez dira falta Aste Santuko oporretarako. Batzuek, ikasleek bereziki, bi aste oso izango dituzte atsedenerako; beste batzuek, berriz, soilik egun gorrietan izango dituzte

jaiegunak. Horiek zertxobait gehiago itxaron beharko diete atsedena hartzeko egunei. Baina, dena delakoarekin, guztiek dute aukera, herritik mugitu gabe, plan bereziak egiteko.

Zinea gustuko duten horiek, astebururo dituzte pelikulen proiektzioak Biterin. Gainera, hilabetean bitan, gutxienez, antzerkia izaten da kultur etxean. Adin tarte guztietako herri-tarrentzat prestatzen dituzte saioak, eta mota guztietako antzezlanak aurkezten dituzte. Apirilaren 9an, adibidez, *Tempus antzezlan*a oholtzaratuko du El Que Ma Queda De Teatre konpainiak, eta sarrerak salgai daude dagoeneko, Biteriko leihatilan edo, online, *kultura.hernani.eus* web orrian.

Gauzak horrela, prestatu agendak eta, asteburu honetan, datozenetan eta Aste Santuko oporretan, gozatu herriko kulturaz eta gastronomiaz! **k**

KULTUR EKINTZAK

Zinea, antzerkia, erakusketak, musika eta dantza ikuskizunak...

Sarrerak, gonbidapenak eta informazioa:

'*kultura.hernani.eus*'



Hernaniko gaztetxoak, emanaldi batez gozatzen, Biterin kultur etxean.



Markeliñe konpainiaren 'Ganbara doinuak' antzezlan, Biterin.

Zumardi jatetxea

ZUMARDI
JATETXEA HERNANI

www.zumardijatetxea.com

Orkolaga Kalea, 2
943 53 51 97



Zumardi jatetxeko plater ezagunena.

HERNANI BABESTUTAKO EDUKIA

Haragia eta arraina parrillan egitea da Zumardikoen bereizgarri nagusia. Jatetxeak, gainera, garrantzia berezia ematen dio kalitatezko produktu freskoa erabiltzeari. Bezeroek gehien eskatzen dituzten plateren artean, arroza bogabantearekin da jatetxearen izarra.

Eguneko menua asteartetik ostiralera ematen dute 19 euroan, edaria eta postrea barne. Horrez gain, karta eta

taldeentzako menu bereziak ere badituzte. Sukaldaritza tradizionala eta garaian garaikoa sustatzen dute plater guztietan. Era berean, txotx denboraldia dela eta, sagardotegi menua ere aurkezten dute. 35-40 euro inguruko menua da; Goyako txuleta eta urteko sagardoa dute, kupela batean.

Oraingoan, astean zehar ez da afariarik ematen, baina maiatzetik aurrera, egunero afariak ematera bueltatuko dira. Jatetxeak terraza du, kanpoaldean jan ahal izateko. Erreserba egin nahi izanez gero, telefonoz, WhatsApp-pez edo zumardijatetxea.com webgunearen bidez egin daiteke.

ORDUTEGIA

Igande, astearte eta asteazkenetan

• 12:00 - 17:00

Asteburuak (ostegunetik larunbatera)

• 12:00 - 00:00

Aralar taberna

ARALAR
TABERNA



Aralar tabernan aurki daitezkeen pintxoak.

Felipe Sagarna «Zapa» Kalea, 4
943 33 15 06

Garrantzia haundia ematen diote 0 kilometro filosofiari eta etxean egindako produktuak haien kontsumitzaileei eskaintzeari. Hori dela eta, sukaldean erabiltzen dituzten lehengaiak 0 kilometrokoak izaten dira: arrautzak, haragia, eta abar. Esaterako, esnea Igel-doko baserri batetik ekartzen dute, eta postre moduan aurkezten duten irasagarra, haien etxean egindakoa da.

Horrez gain, garaiko produktuak ere erabiltzen dituzte elaboraziorako (barazki freskoak, denboraldiko lehengaiak, eta abar). Bezeroa etxeko goxotasunean sentitzea nahi dute, etxean egindako platerak eta razioak eskainita.

ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera

• 10:00 - 01:00

Asteburuak

• 11:00 - 02:30

HERNANI BABESTUTAKO EDUKIA

Aralar taberna kroketengatik eta pintxoengatik da ezaguna herrian. Horiek guztiak etxean eginak dira eta krocketak, gainera, hainbat motatakoak egiten dituzte (Idiazabal gazta, urdaiaz-pikoa, onddoak, espinaka...). Frito eta pintxoetan espezialistak izateaz gain, bokatak, razioak, hanburgesak eta plater konbinatu mordoa ere eskaintzen dituzte, bazkaltzeko eta afaltzeko.

Epeleko ibilbidean, arbasoengana buelta

8,6 kilometroko ibilbidea egin daiteke bi orduz baso, erreka, artamugarri, harkaitza eta estazio megalitiko artean, otorduaren aurretik.

URUMEA IBILBIDEAK

Epeleko ibilbideak ingurugiro eta kultura aldetik garrantzi haundiko guneak ezagutzeko aukera bikaina ematen du. Era berean, errekaertz eta basope ilunetatik ez ezik, Hernani eta Goizueta herriak lotzen dituen GI-3410 errepidearen 3,7 kilometroan Epele auzoa dago eta ibilbideak hementxe du hasiera, Irubide jatetxean bertan. Luzera 8,6 kilometrokoa da, 2 ordu eta laurdenean egiteko modukoa eta zailtasun ertainekoa da. Gaur egun, ibilbide hau, bere osotasunean, marka txuri-horiz seinaleztatuta dago. PR-Gi 1002 izenarekin balizatuta dago. Astigarraga aldera hartzen badugu, Akeleneatik ere atera gaitezke Polipaso ibaian barrena, Epele-runtz.

Bertan aurkitzen da Epele erreka. Hernani eta Astigarraga arteko mugetatik doan erreka honen arroan kalitate haundiko urak eta ondo garaturiko baso eta basopeak aurki ditzakegu. Honek guztiak, bisoi europarra, ur-satorra edo eta izokina bezalako animalia mehatxatuen kontserbaziorako gune garrantzitsua bihurtzen du.

Epeleko basoa. Aiako Harria-

ren barruan, Epeleko basoaren tamainak eta berau osatzen duen zuhaitz eta basope garatuak, Hernaniko udalerriko baso garrantzitsuenetariko bat osatzen du. Bertan, Europa mailan urriak diren erreka-ertzetatik kanpoko haltzadiak aurki daitezke.

Igorin-Akola estazio megalitikoa. Hernani, Astigarraga eta Donostiako lurretan zehar zabaltzen den estazio megalitiko honek, Hernaniko udalerrian 7 trikuharri ditu. Multzo Monumentalaren kategoriarekin, Kalifikaturiko Kultur Ondasun izendatua, Hernaniko Sagastietako Lepoa I izeneko trikuharria da hoberen kontserbaturik dagoena.

Artamugarriak. Urumeako bailaran hain ohikoak diren sarobeen erdialdea adierazten duten harriak dira. Sarobe edo saroi bezala ere ezagunak ziren gune hauen jatorria oraindik ere zalantzakoa den arren, aitzina, basogintza-guneen baitan esparru "libre" garrantzitsu bat zirela uste da. Ibilbide honetatik gertu aurki ditzakegun artamugarriak Akola eta Larregain dira:

Akola. Gure ibilbidetik kanpo, Akola baserriko lurretan dago kokatua eta oraindik ere ongi




Epeletik abiatuta egiten den itzulia ikusi daiteke irudi honetan.

kontserbaturik dago. Ikerketek adierazi dutenez, sarobeak gune eguteretan eraiki ohi ziren beti ere. Kasu hau, horren adibide garbi bat izan daiteke. Artamugarria erreferentziatzat harturik jartzen ziren baztermugarriak ikusi daitezke oraindik ere baserri inguruan.

Larregain. Ibilbidetik nahiko alhenduta, Larregain sagardotegiaren inguruetan kokaturik dago, aurkitzeko zaila den gunean.

Argurutzeko harkaitzak. Misterioz beteriko gune honetan, harrian bertan forma ezberdineko gurutze bana markaturik duten lau harkaitz aurki daitezke. Hainbat hipotesi dauden arren, oraindik ere ezin izan



Paraje ederrak ikusi daitezke ibilbidean.

da argitu gurutze hauek benetan gordetzen duten misterioa.

Ereñotzuko basoa. Hernaniko baso mistorik haundienaren zuhaitzek, Urumearen ibaiertzerraino dauden lur malkar-

tsuak estaltzen dituzte. Gune batzuetan sasiarkazia bezalako zuhaitz inbaditzaileak ikusi daitezkeen arren, basoaren haunditasunak berak aipagarria egiten du Ereñotzuko basoa. **k**

Akelenea



Akelenea sagardotegia XIX. mendekoa da eta Astigarragan, Oialume auzoan dago kokatua. Hasiera batean, sagardotegia soilik zen baina orain erretegia ere bada. Industria asko dagoen eremuan kokatua egon arren, berdegune asko dauzka inguruan eta erreka ere bai.

Bi jantoki dauzka, bertan jaunartzeak, bataioak, enpresa bazkariak, koadrila bazkariak ospatu daitezke.



Eguzkitza, Oialume Bidea, 57 / 943 33 33 33

Urte osoan zehar sagardotegiko menua eta sagardoa txotxean eskaintzeaz gain, karta eta hainbat menu ere badi-tu. Asteazken zehar egunero aldatzen dute eguneko menua. Lau aukera izaten dira aurreneko plateraren eta beste lau bigarrenean. Karta asteburuetarako prestatzen da, bertako produktu onenekin.

Sukaldaritza tradizionala lantzen dute eta bertaratzen direnek denetarik aurkituko dute. Gauetan 10 pertsona edo gehiagoko taldeentzako irekitzeko aukera dago aldeztu aurretik abixatuz gero, baita igande eguerdietarako ere.

ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera

• 09:00-17:00

Larunbata

• 11:00-18:00

Irubide jatetxea



Jatetxe berezia da Irubide, Hernani eta Goizueta lotzen dituen errepidean, Epele auzoan. 1905. urtean ireki zen establezimendua, eta 117 urteko ibilbidearen ondoren, gure ahasbaita plazer sentsazio batean murgiltzen du.

Pili Bereziartuaren sukaldaritzak edozein harritu dezake. Irubiden sukaldaritza tradizional on batez gozatzeko asmoz joaten zara, maitasunez eta mizmoz egina, baina hurrunago iristen da. Jatetxearen sukaldeak gure sukaldari-



Epele Auzoa 7
667 20 87 02/
943 55 24 80

tzaren sustraia hartzen du, sasoi-ko produktuekin, gure gastronomiaren historia diren errezetekin. Baina Pili beti ematen dio bere ukitua plater bakoitzari, proposamen bakoitzari, izan izozki txiki bat, izan plateraren zaporea indartzen duen beste osagai bat, eta horrek ezusteko bihurtzen du, aurkezpenetatik bertatik hasita, zaintzen duena. Sukaldaritzaren oinarria tradizionala da, Pili bere familietako emakumeengandik jaso duena, baina bere nortasuna eman dio; horregatik, Irubideko sukaldaritza, Piliren sukaldaritza, oso pertsonala da.

ORDUTEGIA

Astelehenetik ostegunera

• 09:00 - 19:30

Ostirala-larunbata

• 09:00 - 19:30/20:30-00:00

Latxunbe jatetxetik hasita, Erdi Aroa helmuga

Plan borobila aurkeztera gatorkizue, tokiko gastronomia eta ondare historikoa ezagutzeko aukera ematen duena. 3 kilometro t'erdiko paseoa da, Latxunbetik hasita Kaxkora artekoa.

HERNANI IBILBIDEAK

Aste Santua ate joka dugu da-goeneke eta, horrekin batera, herritik mugitu gabe, makina bat plan izango ditugu nahi dugunekin gozatzeko. Hernanin, ibilbideak osatzeko parada zabalago; paseo batzuk mendikoak dira, beste batzuk herrian bertan osatzekoak... Eta zer hobe kilometrotxo batzuk egin ostean tripa goxo-goxo betetzea baino? Ariketa fisikoa egiteko, ingurua ezagutzeko zein tokiko gastronomian murgiltzeko planak aurkituko ditugu herrian.

Latxunbe jatetxetik hasita, ibilbide paregabea izango dugu aurretik. Mikelen eta Aitorren jatetxeko punta-puntako pintxo nahiz platerekin gozatu ostean, prest egongo gara kilometro gutxiko paseoa hasteko. Latxunbetik atera eta eskubitara hartuko dugu, Urbieta kalea jarraitu eta Antziolako biribilgunera heldu arte. Hortik, ezkerretara egin eta lehenengo kalean eskuinetara aldatuko dugu noranzkoa. Hortxe izango dugu, Antziola eta Iturmendi kaleen bidegurutzean, eskuinetara, bide eder baten hasiera. Belardia ezkerrean eta eskuinaldean, etxeak,

Haurreskola... Etxeberri auzoa izango dugu hurrengo geltokia. Bertako tunel baxua gurutzatu, Vadriza enpresa eta zubia pasa, eta eskuinetara okertuko dugu bidea. Landare eta Zubipe eskuinaldean ditugula, Urumea ibaiatz gozatzeko aukera izango dugu ibilbideko azken txanpa honetan. Karabelgo zubia pasa eta auzotik barrena jarraituko dugu bidea. Hortxe, bi aukera izango ditugu Kaxkora, azken helmugara, heltzeko: igogailua hartzea edota trenbideko eskailera igotzea. Hori, zuen aukeraren. Erdigunera heltzean, herriko ondarea ezagutzeko aukera mordoa izango ditugu aurretik.

Hirigune historikoa ezagutzuz Kaxkora iristean, Hernaniko hirigune historikoa ezagutuko dugu. Garai batean, herria harriz inguraturik zegoen eta, gaur egun, garai hartako hainbat etxebizitza ezagutu ahal izango ditugu.

Duela milaka urte, herrira sartzeko bost sarrera-ate zeuden, eta itxura obalatua zuen horiek gurutzatu osteko gune itxiak. Bere sorreran, hiru kalek bakarrik osatzen zuten Alde Zaharra: Kale Nagusiak, Karka-

bak eta Andre Kaleak. Azken honen, garai batean, Urumea eta Kardaberaz izenak ere izan ditu.

Herri erdigunean, bi kale horien artean, gune ireki bat gelditu zen: Plaza Berri. Historikoki, merkatua egin izan den plaza da, eta gaur egun ere Behemendiko azoka, esaterako, hortxe egiten da. Horrekin batera, erdigunearen zatirik altuenean, beste gune ireki bat osatu zen: Gudarien Plaza. Egun, enparantzaren sarrera arkuari lotuta dago, eta bertan daude udalategia zein San Joan Bataiatzailea parroki-eliza.

Esanak esan, Alde Zaharrak mantentzen ditu Erdi Aroko kale eta eraikin gehienak. Horregatik, Hernaniko hirigune historikoa ezaguna da Euskal Herriko interes historiko-artistikodunetako bat izateagatik.

Aipatutako ibilbidean barrena goazela, Karabeletik igo eta herri erdigunera iristean, Andre Kalera iristeko, arkuia topatuko dugu parez pare. Txili tabernaren eta Arriatzu dendaren tartean dago, eta 2002an berreraiki bazuten ere, XVI. mendearen bigarren erdikoa da arku zorrotz hori.

Arkuia gurutzatuta, Tripontzi taberna izango dugu helmuga, Andre Kaleko 11 zenbakian. Ibilbidea ezin hobe amaitzeko, otordu goxoa egiteko aukera izango dugu tabernan. Esku zabali hartuko gaituzte Amaiak, Igorrek eta bertako langileek,



XVI. mendeko bigarren erdiko arkuia, Txili taberna eta Arriatzuren alboan.

bazkaltzeko, afaltzeko zein ha-maiketako borobilak eskaintzeko prest.

Hirigune historikoan gehiago murgiltzeko gogotsu daudenek, ibilbidea jarraitu dezakete Andre Kalen zein Kale Nagusian. Tripontzitik atera eta kale horretan bertan, 28 zenbakian, jato-

rrizko Erdi Aroko etxearen profila duen eraikuntza aurkituko dugu, egurrezko eta adreiluzko egiturarekin. Eta Kale Nagusian, beste hainbat eraikin historiko ikusteko aukera izango dugu, besteak beste, honako zenbaki hauetan: 2, 13, 15, 16, 17, 20, 33, 43, 45 eta 50. **k**

URBIETA - KAXKOA

Luzera: 3 kilometro t'erdia
Hasiera: Urbieta kalea
Bukaera: Kaxkoa

Deskribapen laburra: Urbieta kaletik hasiko dugu ibilbidea eta Antziola izango dugu hurrengo geltokia. Iturmendira igotzen hasi aurretik, eskuinera hartuko dugu, eta bidea jarraituko dugu Sagastialdeberri eta Haurreskola eskuinean ditugula.

Segituan ikusiko dugu Laiztiaga auzoa ezkerretara. Etxeberri auzoko tunela gurutzatu eta 100 bat metro aurrera eginda, bidea hartuko dugu eskubitara. Landare eta Zubipe ikusiko ditugu eskuinetara, eta Urumea ibaiaren kontrako bidea eginez, Karabelgo zubira helduko gara. Auzoa gurutzatu eta, azkenik, gorantz abiaturako gara trenbideko eskailera igota edo igogailua hartuta, Kaxkora heldu arte.

Latxunbe jatetxea



Aitor eta Mikel Perez.

Ilusioz ekin zioten jatetxea irekitzearen bidetara Aitor eta Mikel anaiek 2020ko abenduan. Ateak zabaldu zituztenetik, arrakasta hutsa izan du Latxunbe jatetxeak, mahai guztiak betetzen baitira egunero-egunero, bazkalorduan zein afalorduan. Eta hori ez da kasualitatea, herriko gastronomiaren aldeko apustu garbia egiten baitute Perez anaiek.

Gainera, mimo haundiz prestatzen

Urbieta kalea, 16 baxua / 943 55 26 30

dituzte plater guztiak, eta barietatea da nagusi pintxoetan, menuan, kartan zein kartaz kanpoko eskaintzetan. Aste barruan, arraia, mariskoa, haragia, entsaladak eta bestelako platerak izaten dituzte 15 euroko menuan. Gero, asteburuetan, karta izaten da aukeran. Horrez gain, kartaz kanpoko eskaintza ere izaten dute, garaiko produktuetara egokitutako elaborazioekin.

Horrekin batera, erosketa-saskian soilik sartzten dituzte produktu freskoak, eta plater guztiak etxean egingakoak dira. Hori da, hain zuzen ere, jatetxearen filosofia eta oinarria.

OTORDUETAKO ORDUTEGIA

Bazkariak astelehenetik ostiralera:

- 13:00 - 15:00

Bazkariak asteburuetan:

- 13:00 - 15:30

Afariak, astean zehar + asteburuak:

- 20:00 - 23:00

Asteartetan, jatetxea itxita

Tripontzi jatetxea



Andreale, 11 / 943 55 57 24

bernaren bereizgarria, eta bertako sukaldeko ikutuarekin, plater borobilak eskaintzen dizkiete bezeroei. Astelehenetik ostiralera, eguneko menua izaten da aukeran, 12 euro t'erdian. Kafearekin, berriz, 13 euro t'erdia balio du. Tripontzi zein udaberri entsalada, pasta, arroza, legatza, etxeko albondigak saltsan, eta beste asko izaten dituzte menuan. Horrez gain, karta ere badago, eta arraia, haragia, zein bestelako hainbat plater izaten dira. Eta, noski, eramateko ogitartekoak eskatzeko edo barran jateko aukera dago ostegunetik larunbatera.

ORDUTEGIA

Astelehenetik asteazkenera

- 10:00 - 16:00

Ostegunetik larunbatera

- 10:00 - 16:00, 18:00 - 00:00

Aski ezaguna da Tripontzi taberna herrian. Denetarik izaten dute aukeran Igorrek eta Amaiak: pintxoak, platerak, ogitartekoak... Garaiko produktuekin osatzen dute eskaintza eta, gainera, beti izaten dituzte produktu freskoak. Horrekin batera, bertakoaren aldeko apustua egiten dute Tripontzin. Horregatik, ahalegintzen dira menurako zein kartarako plateretan 0 Kilometroko eskaintza izaten.

Sukaldaritza tradizionala da ta-